herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales

LEGE AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA
Txosten zk.: IJ-2020/401
EKIN: 2020000000110976

SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA
Informe nº IJ-2020/401
EKIN: 2020000000110976

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU-DEKRETU HONEN PROIEKTUARI BURUZKO LEGEZKOTASUN-TXOSTENA:
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ……./2020 FORU DEKRETUA, AREN (E)KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 93/2018 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 3KOA, 2018KO EKITALDIAN, LANERATZEKO ZAILTASUN HANDIAK DITUZTEN BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO LANERATZEKO ZAILTASUN HANDIAK DITUTZTEN BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA EZARTZEN DITUENA, LAN BERRI, COVID-19A DELA ETA HARTUTAKO NEURRIEK SORTUTAKO EGOERARA EGOKITZEKO.

INFORME DE LEGALIDAD SOBRE EL PROYECTO DE DECRETO FORAL /2020, DE DE , POR EL QUE SE MODIFICA DECRETO FORAL DE DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA 93/2018, DE 3 DE JULIO, POR EL QUE SE ESTABLECEN BASES Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA LA PROMOCION DE LA EMPLEABILIDAD DE PERSONAS CON ESPECIALES DIFICULTADES DE INSERCIÓN LABORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA, LAN BERRI, DEL EJERCICIO 2018, PARA ADAPTARSE A LA SITUACIÓN GENERADA POR LAS MEDIDAS ADOPTADAS CON OCASIÓN DEL COVID-19.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

Txosten hau nahitaezkoa eta ez-loteslea da, eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren 42. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoa betetzeko ematen da. Artikulu horien arabera, Lege Aholkularitzarako Zerbitzuari dagokio Foru Aldundiak edo Ahaldun Nagusiak onartu behar dituen xedapen orokorrak egiteko prozesuak koordinatzea eta arauen kalitatea ikuskatzea, baita xedapen horien legezkotasunaren barne-kontrola egitea ere.

El presente informe, que tiene carácter preceptivo pero no vinculante, se emite en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 42 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 86/2016, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de estructura orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, y en el artículo 15 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, según los cuales corresponde a este Servicio de Asesoría Jurídica la coordinación y supervisión de la calidad normativa y el control interno de la legalidad de las disposiciones de carácter general que deban ser aprobadas por la Diputación Foral o por el Diputado o Diputada General

Bertan ezarritakoa betez, hau sinatzen duenak honako hau ematen du:

En su cumplimiento, quien suscribe tiene el honor de emitir el siguiente:

TXOSTENA

INFORME

1) Aurrekariak.

1) Antecedentes.

<u>a) Txostenaren eskabidearen data eta datuak.</u>

<u>a) Fecha y datos de la solicitud de informe.</u>

2020ko maiatzaren 18an, izapidetze elektronikoaren bitartez (EKIN sistema), Lege Aholkularitzarako Zerbitzuari esleitu zitzaion goiburuan adierazten den proiektuari (Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuaren proiektua) buruzko legezkotasun-txostena emateko zeregina.

Mediante la tramitación electrónica (Sistema EKIN) se asigna al servicio de Asesoría Jurídica con fecha 18 de mayo de 2020 la emisión del informe de legalidad remitido sobre el proyecto de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia



Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

mencionado en el encabezamiento.

Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretu horren proiektua xedapen orokor bat da, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 93/2018 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, 2018ko ekitaldian laneratzeko zailtasun handiak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko pertsonen enplegagarritasuna sustatzeko diru laguntza emateko oinarriak eta deialdia ezartzen dituena, Lan Berrik, COVID-19a dela eta hartutako neurriek sortutako egoerara egokitzeko.

El proyecto de decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia consiste en una disposición de carácter general por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 93/2018, de 3 de julio, por el que se establecen las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la empleabilidad de personas con especiales dificultades de inserción laboral del Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2018 para adaptarse a la situación generada por las medidas adoptadas con ocasión del COVID-19.

<u>b) Eskabidearekin batera aurkeztu den dokumentazioa.</u>

<u>b) Documentación presentada junto con la solicitud.</u>

Legezkotasun-txostenaren eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu da:

Junto con la solicitud de informe de legalidad ha sido aportada la siguiente documentación:

Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretu baten proiektuaren behin betiko testua.

Texto definitivo del proyecto de decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia propuesto.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren 3632/2020, Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio xedapen orokorra egiteko prozedurari.

Orden Foral 3632/2020, de 15 de mayo, de la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, por la que se acuerda la incoación del procedimiento para la elaboración de la disposición de carácter general.

Sailaren txosten juridikoa, 2020ko maiatzaren 15ekoa. Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. artikuluan dago ezarrita txosten hori egin behar dela.

Informe jurídico departamental de fecha 15 de mayo de 2020, previsto en el artículo 14 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.



Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

Generoaren eragin ezaren buruzko txostena, 2020ko maiatzaren 15ekoa.

Informe de ausencia de relevancia en función del género, de fecha 15 de mayo de 2020.

Kontrol ekonomikoari buruzko txostena egiteko memoria, 2020ko maiatzaren 15ekoa.

Memoria para la emisión de informe de control económico de fecha 15 de mayo de 2020.

Kontrol ekonomikoari buruzko txostena, eragozpenik ez dagoela dioena. Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuak 2020ko maiatzaren 18an egindakoa.

Informe de control económico, emitido sin reparos, por el Servicio de Presupuestos y Contabilidad con fecha 18 de mayo de 2020.

## 2) Eskumena.

## 2) Competencia.

a) Arloko eskumena

a) Competencia sobre la materia.

Gaiaren gaineko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, araubide erkideko aldundietan Osoko Bilkurari eta Gobernu Kontseiluari dagozkien gaiak aztertzea eta ebaztea, betiere Batzar Nagusien eskumenak alde batera utzita.

En cuanto a la competencia sobre la materia, de conformidad con el artículo 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, corresponde a la Diputación Foral, entre otras, el conocimiento y resolución de aquellos asuntos que en las Diputaciones de régimen común corresponden al Pleno y a la Comisión de Gobierno, a salvo siempre de las competencias de las Juntas Generales.

Titulu honen bidez onartzen diren eskumenen artean, honako hau aipatu behar da: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua, honako hau dioena: "*lankidetza garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta lurralde probintzialean*

Entre las competencias que se asumen a través de este título, debe mencionarse el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local: *La cooperación en el fomento del desarrollo económico y social y en*

Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

*planifikatzeko, gainerako administrazio publikoek arlo horretan dituzten eskumenen arabera.*

*la planificación en el territorio provincial, de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.*

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak proposatutako xedapen orokorra gorago aipatutako arau-esparruan sartzen da, eta, horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiarena da araututako arloari buruzko eskumena.

La disposición de carácter general propuesta por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, tiene encaje dentro del marco normativo arriba señalado y, en consecuencia, la Diputación Foral de Bizkaia es competente con relación a la materia regulada.

b) Proposamena egin duen organoak arau-ekimenerako duen eskumena.

b) Competencia para la iniciativa normativa del órgano proponente.

1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluaren arabera, foru-diputatuei dagokie Foru Aldundiari proposatzea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak, onar ditzan.

Según el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, corresponde a los diputados y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasun Sustatzeko Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2016 Dekretuaren 1. artikuluak sail horri esleitzen dio *bazterketa-arriskuan dauden edo enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak laneratzea, enplegagarritasuna sustatzea eta mantentzea, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko politikak eta berrikuntza eta enplegagarritasunaren sustapena, batez ere.*

El artículo 1 del Decreto de la Diputación Foral de Bizkaia 6/2016, por el que se aprueba el Reglamento de estructura orgánica del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, atribuye al departamento mencionado *la inserción laboral de personas en riesgo de exclusión o con dificultades de acceso al empleo, la promoción y sostenimiento de la empleabilidad, las políticas de lucha contra la pobreza y la exclusión social y la innovación y la promoción de la empleabilidad, especialmente entre la juventud*.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales

Ondorioz, arlo horretako arau-ekimena Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari dagokio.

En consecuencia, la iniciativa normativa en esta materia corresponde a la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

c) Bizkaiko Foru Aldundiak organo gisa duen eskumena.

c) Competencia de la Diputación Foral de Bizkaia como órgano.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1
987 Foru Arauaren 17.1.4 artikuluan xedatzen da.

Viene referida en el artículo 17.1°.4 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico.

3) Proposatutako arauaren maila eta dokumentuaren kalitate teknikoa.

3) Rango de la norma propuesta y calidad técnica del documento.

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakora egokitzea.

a) Adecuación a lo dispuesto en el artículo 63 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia

Proposatutako arauaren mailak 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 63. artikuluan ezarritakoa betetzen du.

El rango de la norma propuesta se ajusta a lo establecido en el artículo 63 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero.

b) Proposatutako testuaren Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko uztailaren 4ko erabaki bidez onetsitako araugintza-teknikari buruzko gidalerroekiko egokitzapena.

b) Adecuación del texto propuesto a las Directrices de técnica normativa aprobadas por Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 4 de julio de 2017.

Proposatutako testua bat dator Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako araugintza-teknikari buruzko gidalerroekin.

El texto propuesto se ajusta a las Directrices de técnica normativa, aprobadas por la Diputación Foral de Bizkaia.



Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

4) Ekimena urteko arau-planera egokitzea.

Kontuan harturik COVID-19a dela-eta hartu diren neurriek sortutako egoerara egokitu beharra dela Foru Dekretua modifikatzeko arrazoia, araugintza-ekimen hau ez dago jasota 2020. urteko arau-planean.

4) Conformidad de la iniciativa con el Plan Anual Normativo.

Dado que la modificación del Decreto Foral se debe a la necesidad de adecuarse a la situación generada por las medidas adoptadas con ocasión del COVID-19, esta iniciativa normativa no se encuentra recogida en el Plan Anual Normativo para 2020.

5) Erregulazio onaren printzipioen jarraipena eta printzipiok zioen azalpenean jasotzea.

Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluarekin bat, honako hauek dira erregulazio onaren printzipioak: beharrezkotasuna eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontuak ematea.

Xedapen orokorra bat dator goian adierazitako printzipioekin.

5) Seguimiento de los principios de buena regulación y su reflejo en la exposición de motivos.

El artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, dispone que son principios de buena regulación los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y celeridad y eficiencia, así como de participación ciudadana y rendición de cuentas.

La disposición de carácter general se ajusta a los principios arriba indicados.

6) Foru-dekretua Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarritako moduan egiteko prozeduraren jarraipena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan arautzen da Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura.

6) Seguimiento del procedimiento para su elaboración previsto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.

El procedimiento para la elaboración de las disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia está regulado en el Decreto

Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren maiatzaren 15eko 3632/2020 Foru Aginduaren bitartez, arau-proiektu hau egiteko prozedura abiarazi zen (11.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz).

Por Orden Foral 3632/2020, de 15de mayo, de la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, se inicia el procedimiento para la elaboración del presente proyecto normativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 11.2.

14. artikuluan ezarritako sailaren txosten juridikoak artikulu horretan bertan ezarritako edukiak betetzen ditu, eta aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin behar ez izatea justifikatzen du, hala ezartzen baita 2/2017 Foru Dekretuaren 9. eta 13. artikuluetan.

El informe jurídico departamental del artículo 14 se ajusta a los contenidos previstos en el referido artículo y justifica la exención de los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública al amparo de lo dispuesto en los artículos 9 y 13 del Decreto Foral 2/2017.

Legezkotasun-txostena egiteko eskaera 15.4 artikuluan ezarritakoarekin bat egin da.

La solicitud de informe de legalidad ha sido realizada de acuerdo con lo establecido en el artículo 15.4.

Horrenbestez, uste da prozedura behar bezala egin dela.

Por lo que se considera que el procedimiento seguido es el correcto.

## 7) Goragoko antolamendu juridikora egokitzea.

## 7) Adecuación con el ordenamiento jurídico superior.

Goian adierazitako foru-dekretuaren proiektuak bete egiten du aurreko zenbakietan aipatutako araudian ezarritakoa, bereziki, honako hauei dagokienez: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, eta Jardunbideari buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio

El proyecto de decreto foral arriba mencionado se ajusta a la normativa citada en los apartados anteriores y, en especial, a la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento

Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.

Prozedura Erkidearena, eta aplikatu beharreko gainerako araudia.

Administrativo Común de la Administración Pública, y al resto de normativa que resulta de aplicación.

**8) Aurkeztutako proiektuaren legezkotasunari buruzko ondorioa**

**8) Conclusión sobre la legalidad del proyecto presentado.**

Hauxe da txosten hau sinatzen duenaren iritzia, Zuzenbidearen arabera oinarri edo funts hobeagoa duen irizpidearen mende jartzen dena.

Esta es la opinión de quien suscribe, que lo somete a criterio mejor fundado en Derecho.

Bilbon, 2020ko maitzaren 18an

En Bilbao, a 18 de mayo de 2020

Sin./Fdo.: MARIA IRATXE AIZARNA GOICOECHEA - 2020-05-18
LEGE AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA-REN LEGE AHOLKULARITZA OROKORREKO LEGELARIA
LETRADO/A ASESORÍA JURÍDICA GENERAL DE SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA

Elektronikoki sinatutako dokumentua. PZIJ-U43O-E980-JI4T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) PZIJ-U43O-E980-JI4T en www.ebizkaia.eus.